

Alokairu soziala



Vital Fundazioak hainbat diru-laguntza eskaintzen ditu, Vitalquiler sozietateak sortutako etxebizitza poltsako pisuetako bat eskuratu duten pertsonen alokairua ordaindu dezaten.

Informazioa

2001. urtean abian jarri zen une horretan Vitoria-Gasteizen arrazoizko prezioen truke alokairuan zegoen etxebizitza-eskaintza eskasari erantzuteko. Vitalquiler gizarte-programa da, etxebizitza bat izateko zailtasunak dituzten pertsonentzat.

Hasiera batean proiektuaren xedea Arabako gazteek gurasoen etxetik joateko beharrari erantzutea zen, diruz lagundutako alokairuak eskainiz, lan-merkatara sartzen ziren bitartean. Hala ere, gizartearen bilakaerak eta haien etxebizitza-beharrek programa herritar guztiei zabaltzea ekarri dute, adin-mugarik gabe. Vitalquiler proiektu aitzindaria da eta erreferentzia gisa balio izan du beste erakundeetan egindako antzeko ekimenetarako. Hainbat sari jaso ditu. Ideia berritzaile horri esker, pertsona askok etxebizitza duin bat eskuratu dute arrazoizko prezio baten truke. Aukera horretaz baliatuz, gurasoen etxetik joateko aukera izan dute, bizitza berri bati ekin diote edo familia bat osatu dute.

Eskakizunak

- Adin nagusiak edo emantzipatutako pertsonak.
- Euskal Autonomia Erkidegoan errolatuta egotea.
- Bizikidetzaren unitateko kideek ezin dute etxebizitzarik eduki, araudian jasotako salbuespen-kasuetan izan ezik.
- Bizikidetzaren unitateko urteko diru-sarrerak haztatuek 3.000 eurotik gorakoak eta araudian ezarritako mugatik beherakoak izan behar dute.
- 3.500 euroko gordailu edo abala jarri behar da.
- Kontratuaren iraupena bost urtekoa da, beste bost urtez berritzeko aukerarekin.

Diru-laguntzak

Vital Fundazioak alokairua ordaintzeko diru-laguntzak ematen ditu, maizterrek jaso dezaketen beste edozein laguntzaren osagarri.

Diru-laguntza etxebizitzaren neurriaren eta maizterren diru-sarreraren arabera kalkulatu da. Hilean 175 eurorainokoak izan daitezke 1 eta 2 logelatako etxebizitzetan, eta hilean 200 eurorainokoak 3 logelatako etxebizitzetan.

Diru-laguntza urtebetez ematen da. Horren ondoren, baldintza ekonomikoak berrikusten dira, laguntza berriro emango den ala ez eta zenbatekoa zein izango den erabakitzeko.